

“BOB? NOR DA BOB?”
(Tabernako filosofia)

Idazlea:
Jon Urraza

Musika:
Jon Zubiaga

Antzezleak:
Jon Urraza eta Jon Zubiaga

BOB? NOR DA BOB?

(Tabernako Filosofia)



JON URRAZA
as "Mike"

JON ZUBIAGA
as "Larri"

Egoera eta pertsonai guztiak
asmatutakoak dira, zeure bizitzarekin
antzekotasunik aurkitu ezkeru...
doluminak gure partez.

Jon Urraza
Idazle eta zuzendaria

AURKEZPENA:

Bederatzi pertsonai agertzen dira, baina bi aktoreen artean antzezteko idatzita dago, ala ere posiblea da bederatzi aktorek egitea. Hauek dira pertsonaiak, Larri eta Mike, kontzertua jotzeko erroparekin doaz, eta beste pertsonaiak egiteko, erropa edo ezaugarri konkretu bat jansten dute pertsonaia identifikatu ahal izateko, testuan (M) duten pertsonaiek "Mike" papera egiten duen aktoreak egin behar dituela esan nahi du, eta ez dutenak "Larrirena" egiten duenak, pertsonai batzu biek egingo dute eskena ezberdinetan:

- "Larri": Gotzon Larrinaga, denbora larregi darama neska berdinarekin, baina ez da aldatzera ausartzen.
- "Mike": Mikel Borda, "Mikel el casau" triste nobiak utzi berri du.
- "Txopi": Inoiz ligatzen ez duena... Baina beti ehizean.
Ezaugarria: Lorez egindako lepoko Hawaiiarra.
- "Patxi": Txopiren lehengusua, ez du ligatzen baina pasatzen duela dio...
Ezaugarria: Sorbaldetan jertzea.
- "Ruben": Erromantikoa, institutoko neska berdinarekin maiteminduta, ORAINDIK!
Ezaugarria: Ibilaldiko bisera.
- "Meteoro": Irtetzen den bakoitzean ligatzen du.
Ezaugarria: Eguzkirako betaurreko beltzak.
- "Gartzia": Sei kiloko furgonetarekin, kooperante solidarioarena egiten.
Ezaugarria: Palestinoa eta artilezko txaleko handia.
- "Bilintx": Mike hobekien ulertzen duena, triste ta maiteminduta, gitarjole mistikoa.
Ezaugarria: Sonbreru beltza.
- "Medikua": Psikologoa, bapatean agertzen da batzuen buruak sendatu nahian.
Ezaugarria: Mediku bata zuria.

GOTZON LARRINAGA "LARRI": Gitarra afinatzen kontzertua hasteko prest, itxaroten bere laguna... jotzen hasten da, ordua begira non ote dagoen pentsatzen... "Joe! Hau beti berandu"...

MIKEL BORDA "MIKE": Sartu botila batekin eta triste.

- MIKE: Aupa... (goibel)
- LARRI: (Haserre, baina disimulatzen publikoak ez ikusteko) Hombre, heldu zara! Gaur zer izan da? Trafikoa?
- MIKE: (Buruarekin ezetz)
- LARRI: Ta kitarra? Zergatik ez duzu kitarra ekarri?
- MIKE: Ainhoak utzi egin nau.
- LARRI: Joe!...
Ba ospatzera!
- MIKE: De ke vas tío, hecho polvo nago!
- LARRI: Hecho polvo? Nik zortzi urte daramatzat lentejak jaten; ia egunen baten pikutara bidaltzen nauen.
- MIKE: Ta zer egingo dut orain?
- LARRI: Mikel kontzertu bat daukazu orain.
- MIKE: Ke va tío, nik ezin dut horrela jo.
- LARRI: Zer?
- MIKE: Dana berarekin egiten nuen.
- LARRI: Ka-ga-da!... Ba orain koadrillarekin bueltatu!
- MIKE: Baina nik berarekin egon nahi dut!
- LARRI: Baina berak zurekin ez... (abestu "Tengo una mala noticia") je, je... gainera ez dizut inoiz esan baina, nire ustez: "No te pegaba nada".
- MIKE: Eta nor bai?
- LARRI: (Isildu)
- MIKE: Trago bat nahi?
- LARRI: Ez... orain zer? Hiru urte desesperatuta egongo zara? Aurrekoarekin bezela.
- MIKE: (Edan, eta joan)
- LARRI: Gainera ez dakit zergatik kejatzen zaren, badaude gure adineko mutilak inoiz ligatzen ez dutenak, hoiek ez dute sufritzen utzi dituztelako, baina inoiz ez dute titi bat ikutzen... zuk aukeratu.

(MIKE atzera doa eta "TXOPI"-ren ezaugarria hartzen du)

- LARRI: Hona hemen XABIER TXOPITEA gutxien sartzen duen Euskal Herriko gaztea!... Zer Txopi? Zer moduz?
- TXOPI(M): Baina zergatik esan behar duzu hori? Orain neskek pentsako dute ohean ez naizela ondo moldatuko, eta panoli bat naizela.
- LARRI: Ez zara ala?
- TXOPI(M): Ez!!
- LARRI: Eta zelan moldatzen zara Txopi? ... Zenbat urte daramazu muxu bat emon barik?
- TXOPI(M): Calla cabrón! Gainera oso ondo gogoratzen dut.
- LARRI: Zer gogoratzen duzu? Hogei urtekin hondartzan bota omen zenuen hura, kriston mozkorragaz... Ta neska ezezagun batekin? (ez dute sinisten koadrillaren barruan).
- TXOPI(M): Bai, zer? Egia da... Eta hau bizikletan ibiltzea bezelakoa da, ez da inoiz ahazten...
- LARRI: Ja, baina etapak irabazteko entrenatu beharra dago...
- TXOPI(M): Entrenamentuagatik izango da, egunero entrenamendu saio pare bat egiten dut gutxienez... baina gero ta gehiago entrenatuz, gero ta gehiago behar dut konpetizioa... Baina inoiz ez dut aurkaririk aurkitzen... Urtero Giro, Tourta Vuelta korritzen ditut ta udako klasika guztiak, baina inoiz ez dut mailota janzteko aukerarik.
- LARRI: Mailota jantzi? (Barregurari eutsiz) Hori dakar gregario izateak... taldez aldatu ia... lagun itsusiak bilatu.
- TXOPI(M): Batzutan konpetiziorako griña asetzeko aurkari bat kontratatzen dut.
- LARRI: Bai!?
- TXOPI(M): Bai, egunkarietan datoz... normalean atzerritarrek dira... beltzak, errusiarrek, errumaniarrak, orientalak... horrela beste herrietan zelan korritzen den ikusten dut...
- LARRI: Korritzen...
- TXOPI(M): Gainera nik kontratatzen ditudanez nik nahi dudan teknika erabiltzen dute... eta prorroga jokatu nahi badut, gehiago ordaindu ta listo!
- LARRI: Ya... prorroga... ba zure laneko batek esan zidan...
- TXOPI(M): Ez da egia!... Badakizu onena zer den?... Biharamunean ez dutela errebantxarik eskatzen.
- LARRI: Bai noski... hori onena, bertokoek beti nahi dute!... Baina ez da arraroa?
- TXOPI(M): Lehenengo egunean arraro sentitzen zara ordaintzeagatik... baina gerokoetan normal-normal zoaz, lasai-lasai... eta onena

oporrak dira... hemen gelditu beharrean, futbol talde txiroak bezala eta betiko taldeen kontra jokatu txoznetatik arrantzan... nik talde inportanteak bezala egiten dut: "stage de pretemporada", gainera urte bakoitzean leku ezberdinetara, teknika ezberdinak ikasteko... egon naiz: Kuban, Errepublikan, Brasilen, Thailandian eta Balin... buah!!! Sinestezina... harrigarria da zenbat dakiten hoiek txirrindularitzari buruz.

- LARRI: Bai; eta eskiari buruz, eta elurrik ez dute ikusi.
- TXOPI(M): Noski, hoiena instintiboa delako! Instintiboa. Orain aurkeztuko dizuet: (Larrik PATXI-ren ezaugarria jantzi) Oraindik nik baino gutxiago sartzan duen Euskal Herriko gaztea, nire lehengusua: PATXI TXOPITEA.
- PATXI(L): Baina nik ez dut behar.
- TXOPI(M): Bai, bai...
- PATXI(L): Ez, ni sexuaren gaintetik nago... ni pansexuala naiz.
- TXOPI(M): Bai muslo-muslo, pan-pan.
- PATXI(L): Ez, baina ni ez nabil horren atzetik, eta lasaiago bizi naiz.
- TXOPI(M): Ja...
- PATXI(L): Zu oraindik kondoiekin ateratzen zara kalera?
- TXOPI(M): Bai beti, beitu (kondoi zaharra atara)
- PATXI(L): Je, je, hori kadukatuta egongo da.
- TXOPI(M): (Begiratu) Ez oraindik ez, hilebete bat falta zaio.
- PATXI(L): Ba nik ez ditut ateratzen, nik aspaldi galdu nuen itxaropena.
- TXOPI(M): Ba itxaropena ez da galdu behar, hori azkena da, bestela RUBEN dagoeneko suizidatua egongo zen.
Hemen duzue RUBEN gure azken erromantikoa, institutuko neska batekin maiteminduta **ORAINDIK!!!**
- PATXI(L): Txopi, ni geldituko naiz Rubenekin zu zoaz etxera txanpion league grabatzera.
- TXOPI(M): Egia da!, agur. (RUBEN-eren ezaugarria ipintzera doa)
- PATXI(L): Ikusiko duzue, hau bai dela pertsonaia, RUBEN, kuadrillako Romeoa...
- RUBEN(M): (Sartuko da)
- PATXI(L): Hombre Ruben, zer moduz?
- RUBEN(M): Bueno betiko lez... Aitziber ikusi duzu?
- PATXI(L): Bai anbulatorioan goizean, bere bigarren alaba zeraman, medikuarengana.
- RUBEN(M): Ze ordutan? Bihar joango naiz, ia berriro joan behar duen...
Benoa, espero dut grabe ez izatea... Ze ordutan?

- PATXI(L): Ia Ruben, ezin duzu denboraldi osoa, bueno zure denboraldi guztiak jubeniletatik, objetibo bakarrera zuzendu!
- RUBEN(M): Zergatik ez? Amstrongek egiten zuen.
- PATXI(L): Bai baina Amstrong fuera de serie bat da eta zu normaltsua zara... gainera Tourra irabazi baino lehen, ziur bere herrian karreraren bat irabaziko zuela... eta zure palmaresa estrenatu barik dago oraindik
- RUBEN(M): Zuk ere, ez dituzu etapa asko irabazi, eh Patxi!
- PATXI(L): Bale, baina hori beste gai bat da... gainera nik horretaz pasatzen dut.
- RUBEN(M): Bai... Eta zure lehengusuak ere pasatzen du ezta? Txopi el Salido.
- PATXI(L): Baina Txopi behintzat ez da arrain batera murrizten, itsaso guztietan botatzen du sarea... eta kainabera darama beeti prest. Eta hala ere ez diote amua sekula irensten.
- RUBEN(M): Neskek aurretik ikusten dutelako, eta holakoekin ez dute ezer jakin nahi.
- PATXI(L): Eta zurekin bai ala? Gehienek atzelaria zarela uste dute... eta beste batzuk atzeratua.
- RUBEN(M): De qué vas Patxi?
- PATXI(L): Ia Ruben, noiz ikusi zenuen Aitziber azkenekoz?
- RUBEN(M): Pasadan hileko 23an.
- PATXI(L): Eta zeozer esan zenion?
- RUBEN(M): Eh... bueno...
- PATXI(L): Ez!... Agurtuko zenuen behintzat?
- RUBEN(M): Bai... Baina ez ninduen ikusi.
- PATXI(L): Edertol!... Bueno ni banoa partidua ikustera, agur.

(Desagertzen da eta LARRI agertuko da).

- LARRI: A ver Rubentxu.
- RUBEN(M): Aupa Gotzon.
- LARRI: Neska hori ezkondata dago eta bi alaba ditu. Horrela birjina hilko zara, ez du merezi,... beitu ni, Unitik neska berdinarekin nabil eta edozeinekin enroilatzeko prest nago.
- RUBEN(M): Ba zure jarrera nirea baino ulertezinagoa da, gustora ez bazaude utzi.
- LARRI: (Amorru eman dio, arrazoi apurra duelako eta erasotzen hasiko da, sarkasmoa erabiltzen) Neure jarrera paketa utzi, zeureaz ari gara. Inoiz esan al diozu zeozer?...Agian

- sekretuan maiteminduta eukiko duzu, eta ez hitzegiteagatik, ez zarete elkartzen...
- RUBEN(M): Bai nik hori uste dut... berarekin gurutzatzen naizen bakoitzean, nik begirada eusten diot, horrela. (begirada eutsi, aurrera begira, ikusle bati begira).
Eta beti da bera bestaldera begiratzen duena.
- LARRI: (Flipatzen) Orduan argi dago!... Zeozer esan behar diozu.
- RUBEN(M): Baina... eta enrrollatzen bagara eta ez ba zait gustatzen?..
igual ez gara ondo moldatzen.
- LARRI: (Ironia) Zure esperientziarekin seguru ondo moldatzen zarela...
Pelikulak behintzat ikusi dituzu ezta?
- RUBEN(M): Bai, pelikulak bai. Ikusi dut: "Shakespeare in love", "Love Actually", "Los puentes de Madison", "Memorias de Africa", "La princesa prometida"...
- LARRI: "La princesa prometida", "La princesa prometida"... "La princesa promiscua" ikusi behar duzu.
- RUBEN(M): Ez baina horrenbeste urte berarekin amets egiten, ziur nago benetakoarekin enrrollatu ezkerro defraudatuko nauela...
- LARRI: Berak zu defraudatut?... Ondo... beitu txo, edozein neskarekin harrapatuko bazenu Aitzibonbas ahaztuko zenuke segundu baten... Benga, benga atara birra batzu... ke tío!... Hau Marten bizi da!... Edo urrunago!... Eta ni Uniko neska berdinarekin (begiratu ia dagoen) Leire?.. ez, ez dago... ez dago. Uniko lehenengo urtean ezagutu nuen, Santo Tomasen enrrollatu ginen eta hortik aurrera elkarrekin autobusean, elkarrekin bibliotekara ikastera, elkarrekin bazkaldu, elkarrekin lo, elkarrekin jaietara... ta karrera osoa elkarrekin... bueno nik apur bat beranduago bukatu nuen, baina tira... elkarrekin bizitzera joan... elkarrekin, elkarrekin... dana elkarrekin egiten dugul!... Ta gero inoiz ez dut denborarik nire gauzak egiteko, bere gauzak nirekin egin behar dituenez... eta ez esan ezetz... Morros... nobiak zuri ezetz esan ezkerro -askotan- zuk ez duzu ezer txarrik pentsatu behar, eta sinistu behar duzu bakarrik dela, gogorik ez duela orain, buruko mina duela, momentuko gauza dela edo beste gauza bat egin behar duela orain... ba momentuak errepika ta errepika egiten dira... baina aldrebez?? Buahh!! A ver zein den mutila nobiari ezetz esaten diona, berak gogoak dituenen!! Ja!!! Ezin dute

sinistu buruko mina duzula, edo nekatuta zaudela, edo bakarrik justu-justu momentu honetan ez duzula gogorik... mutilek beti gogoak ditugunez (bijilatu berriro ia etorri den) Ba, bai; baina besteekin... Ez! ez da egia, guk ere jaketak ditugu, eta logura, eta hilekoa!... Baina beraiantzako horrek esan nahi du, ez ditugula maite,... edo beste bat dagoela... eta noski III. Gudate Mundiala ez probokatzeko, esfortzua egiten dugu... Baina guri ere, pasioa eta gogoa agortzen zaikigu; batez ere gure nobiak hanketan gu baino ile gehiago dituenean ohera sartzerakoan. Eta gero zapatuan kalera bazoaz:(nobia imitatu) "kalera irtetzeko bizarra kenduko duzu? Ligatzera zoaz, ala?"... Eta bera zer? Apostu egiten dut elkarrekin ibiltzen itxiko bagenu, egingo zukeen lehenengo gauza depilatzea izango zela... "Aiba praka hauek orain sartzen zaizkit... ez hobeto, minigona jantziko dut".

(Badator MIKEL bi garagardorekin).

- LARRI: Eta Romeo?
- MIKE: Joan da, esan dit Aitziberrek hartzen zituela ordu honetan bere alabak amamaren etxetik eta...
- LARRI: Joe!
- MIKE: Aitziber, Aitzibonbas da? (Galdera egiterakoan eskuekin titi haundien keinua).
- LARRI: Bai.
- MIKE: Oraindik horrela?... Baina zenbat denbora pasa da?... Joder! Hau birjina izango da!! (flipatzen eta barre) Ke heavy tío!
- LARRI: Ikusten? Badaude oraindik zu baino txartoago daudenak.
- MIKE: Jode ni hecho polvo nago, baina eske honek kriston arrakala dauka... entzerratzeko dago!...
- LARRI: Bueeno, horrek medikua ere bere onetatik atarako luke.

(Aldatu: LARRI → MEDIKUA. MIKE → RUBEN)

- MEDIKUA(L): Ia Ruben erakutsi zure marrazkiak (ematen dizkio) Aitziber, Aitziber, Aitziber... (arnasa hartu) Ia Ruben, ezin zara beti neska horretan pentsatzen egon.
- RUBEN(M): Zergatik?
- MEDIKUA(L): Ezin zarelako kontzentratu eguneroko bizitzan egin behar dituzun gauzak egiteko.

- RUBEN(M): Kontzentratu egiten naiz. Dana egiten dut Aitziberrengan pentsatzen. Eta horrela dana egiten dut ondo, maitasun handiz egiten dudalako.
- MEDIKUA(L): Bai hori oso polita da, baina ilusio bat da... zuk neska horrekin ez duzu inoiz hitzegin.
- RUBEN(M): Bai, hitzegin dut! BUP-eko hirugarren mailan martxoak 23an, atzuingia eskatu zidan bere abots goxoarekin.
- MEDIKUA(L): Baina hori ez da hitzegitea, eta urte piloa igaro dira!!!
- RUBEN(M): Eta?
- MEDIKUA(L): (Pausa, arnasa hartu) Bera zutaz maiteminduta dago?
- RUBEN(M): Bai.
- MEDIKUA(L): Esan dizu?
- RUBEN(M): Ez... Hori somatu egiten da.
- MEDIKUA(L): Baina ezkontuta dago, eta bi alaba ditu.
- RUBEN(M): Eta?
- MEDIKUA(L): (Ausnartu eta estrategia aldatu) Baina ez duzu kuriosidadea sentitzen?... Ez duzu jakin nahi ia berarekin ibiltzea zernolakoa izango zen?
- RUBEN(M): Nik badakit.
- MEDIKUA(L): Barkatu?
- RUBEN(M): Bai ni beti nago berarekin, egunero hitzegiten dut berarekin.
- MEDIKUA(L): Zertaz?
- RUBEN(M): Danataz?
- MEDIKUA(L): Eta sexua?
- RUBEN(M): Hori ez dizut kontako, hori pertsonala da.
- MEDIKUA(L): Ja... ia Ruben, Aitziber ikusten duzun hurrengoan berarekin hitzegin behar duzu; baina benetan, ez zure buruan.
- RUBEN(M): Eske... Gauzak ez dira horrela egiten, denbora gehiago behar dut... interesantearena egiten ari naiz morboa sortarazteko.
- MEDIKUA(L): Hamabost urtetan?
- RUBEN(M): Maitasunari ez zaio eperik jarri behar.
- MEDIKUA(L): (Etsi) Bueno konkretatzen duzunean biagraren bila etorri, daramazun erritmoarekin seguru beharko duzula eta... Jubilatuta ez banaiz oraindik... Tira, bukatu da kontsulta.

(Berriro LARRI eta MIKE garagardoekin, sartzera LARRIK, MIKEri eperdia ikutu).

- MIKE: Zer? Gaur orduan juergia botako dugu?
- LARRI: Joe, badauzkat gogoak eh! Giro ederra dago!... Baina eske... Leirerekin gelditu naiz zinera joateko...
- MIKE: Eta ezin duzu aldatu?
- LARRI: Ez... eske... asteazkenetan zinera goaz.
- MIKE: Guai... ederto... Gauzak ez dira asko aldatu... Suak ikusi, bokata jan txoznetan eta etxera!... Pa ver el ambiente...
- LARRI: Mira quién habla! Nobia duzunean ez zara inoiz irtetzen. Desagertua egoten zara, missing!
- MIKE: Eske giroa ikusteko bakarrik.. aliziente gutxiago dago... baina zuk beti kontaktzen duzu lanekoekin zaudenean, HORTIK, kriston mangiak harrapatzen dituzula.
- LARRI: (Lehenengo Leire ez dagoela konprobatu) Bai, egia da. Eta?
- MIKE: Joe, ba irten!
- LARRI: Zergatik ez diozu Toronbolari deitzen?... Hori ziur prest egongo dela.
- MIKE: Ufff, ke peligro!... Horrekin asko edan behar da.
- LARRI: Bai, eta gainera horrekin ezin zara jaierdian etxera joan, horrekin gaupasa egitera derrigortuta zaude.
- MIKE: Eta ligatzen baduzu, eskapatu behar zara, bestela plana hondatuko dizu berarekin gelditzeko... Ez nago horren forma onean.
- LARRI: Benga txiste bat kontako dizut, animatzeko.
- MIKE: Benga.
- LARRI: Badira bi atzelari.
- MIKE: Bi gai?
- LARRI: Bai bi gai; lehenengo urteurrena egiten dutela eta gainera baten urtebetetzea da... orduan besteak opari berezia egin nahi dio baina ez daki zer...
- MIKE: (Moztu) Zelakoak dira, eh!
- LARRI: Nortzu?
- MIKE: Marikoiak... taberna batetan sartzen dira... bueno edozein lekutan egonda... eta uste dute guztiek ulertzen dutela...
- LARRI: Guztiak ez, bakarrik ondo daudenak.
- MIKE: Bai, gainera hori!

(Biak batera hankak gurutzatu, "lumadun gai-ak" imitatzen hasi, eta ikuslen arteko gizonezkoak seinalatzen hasi).

- MIKE: Gogoratu dut txiste bat, Bilboko jaietan entzun nion argentinar bati, ederra da.
- LARRI: Eta nire txistia?

- MIKE: Gero kontatu, bestela ahaztu egingo zait.
Bi tipo, madurituak... enrrollatzen dira eta baten etxera doaz: "heldu gara, hau da nire etxea... nahi duzu zerbait?"
- LARRI: "Martini bat, mesedez".
- MIKE: "Olibarekin?"
- LARRI: "Bai, pikaron!"
- MIKE: "Agitado?" (kanpaia jotzeko keinua).
- LARRI: "No, batido" (Bihotz hatzamarrarekin irabiatzeko keinua).
- MIKE: "Ipini zait ez eroso"
- LARRI: "Orain zelan egingo dugu?... Zuk emango didazu niri?... Gero nik zuri, gero zuk niri... eta horrela?"
- MIKE: "Eezz, morbo gehiago egoteko, joku bat egingo dugu".
- LARRI: (Pozik) "Ah bai, bai, ederto!"
- MIKE: "Asmakizun bat proposatuko dizut, eta asmatzen baduzu, zuk emango didazu neuri, eta ez baduzu asmatzen, nik emango dizut zuri".
- LARRI: "Ederto! Bota, bota!"
- MIKE: "Tira, ze animalia den asmatu behar duzu, bai?"
- LARRI: (Eskuarekin hatzaparra balitz bezela besotik pasatu) "Tigrea, groahgn!".
- MIKE: "Je, je... Ez, animalia txiki bat da, begi berdeak dauzka, ile leuna"...
- LARRI: "Zu!".
- MIKE: "Eezz, itxaron, entzun entzun dana, entzun dana... Ile leuna, begi berdeak eta gauetan teilatuetara igotzen da eta ilargiari MIAU egiten dio".
- LARRI: (Pentsatzen gelditu) "Kokodriloa".
- MIKE: (Pentsatu) "Asmatu duzu" (samurki)
- LARRI: (Barre) Je, je... txiste ederra... ba uste duzuna baino gehiago daude, eh!... inguruan gainera.
- MIKE: Bai, hurbil-hurbil, eta armarioan hestu-hestu.
- LARRI: Bueno banoa Leireri deitzera.
- MIKE: Ta zure txistia?
- LARRI: Gero kontakoz dizut, geroarte.

(Badoa LARRI eta METEORO dator)

- MIKE: Ke guai! Solteria ospatzera bakarrik... Bueno egia esan ez nago txistetarako orain...
Hombre, METEORO! Zer moduz?...
- METEORO(L): Aupa Mike!

- MIKE: Zer planik gaur gauerako?
- METEORO(L): (Harrituta) Juergia bota nahi duzu!?
- MIKE: Bai; zer ba?
- METEORO(L): Mikel el casau!?
- MIKE: Ba bai, hain arraroa da, ala?
- METEORO(L): (Pausa, begiratu) Utzi zaitu.
- MIKE: Bai.
- METEORO(L): Ke putada!... Joe, ba justu gaur goizean ikusi dut, aspaldi ez nuela ikusten... ederto dago, eh!... esto... axola dizu, nik?...
- MIKE: Bai!.. Baina behintzat ez egin nire aurrean... eta gero ez kontatu!
- METEORO(L): Eh, lasai tío! Lagunak gara, ez dut ezer egingo... esto... zuk bere tele...
- MIKE: Ez! Bere telefonoa ez dizut emango... Zer aldatuko dugu gaia? Juergia botatzeko irten naiz, baina ostiak botatzen hasi beharko naiz.
- METEORO(L): Bale, bale, lasai, ulertu dut... txiste bat kontako dizut.
- MIKE: Ez badago beste erremediorik.
- METEORO(L): Ba, bada bikote bat, eta urteurrena ospatzen dute eta gainera mutilaren urtebetetzea da, eta neskak zeozer berezia oparitu nahi dio...
- MIKE: Gotzon hasi zait txiste berdina kontatzen.
- METEORO(L): Larri?...
- MIKE: Bai, baina bere txistean homosexualen bikotea zen.
- METEORO(L): Bueno badakizu, bakoitzak bere gustoetara moldatzen ditu txistiak.
- MIKE: Baina Larrik nobia dauka...
- METEORO(L): Buah! Harrituko zinen.
- MIKE: Benetan!?
- METEORO(L): Bueno susmoa besterik ez da, baina... Apur bat eskuluzea da... (neska bat ikusi) Eh! Oraintxe nator. (Ikuslegoko neska baten aurrean gelditu).
- MIKE: Ehiza garaia zabaldu da... gauzak ez dira asko aldatu., tabernan sartu radarra piztu, laserra zuzendu ta badoa. Honekin irtetzea, bakarrik irtetzea bezelakoa da, bakarrik irtetzea bezelakoa baina garestiagoa, taberna bakoitzean neskaren bat konbidatu behar dugunez... bueno hori kuadrilla osoa ez badugu konbidatzen; gainera honekin ez dut ezer ligatuko... eta Ainhoa agertzen bada seguru berarekin hasiko dela hitzegiten..."inuzenteki"... ez, hobe dut joatea, bestela desesperatu egingo naiz,... (Ikusi)

Gainera hortik Txopi dator, konplementu bikaina: El Follador y El Paga-Fantas.

(MIKE badoa ta TXOPI sartu)

- TXOPI(M): Jode, el tigre! Gainera martxan sartuta,... a ver si me pega algo!... Nik ez dakit zer kontatzen dien... ni neska bati zeozer esatera baldin banoa... leloa bezela gelditzen naiz beti, eta nire bigarren esaldia beti da eguraldiari buruzkoa... nahiz eta aurretik pentsatu "honi eguraldiari buruz ezer ez", ba hara noa, eta... "gaur euria"... Honek ordea... gainera neskek barre egiten dute eta gustora daudela dirudi... ez dakit, nik taktika ezberdina erabiltzen dut... neuri beti gustatu izan zait gehiago Wimbledoneko jokua, sake-bolea, eta tantu bat galdu ezkerro beste batengana noa. Hau ordea Roland Garrosekoa da, tantu luzeak, pistaren atzekaldetik peloteatzen... horrek ez dauka meriturik; honek ligatzen du neskak deshidratatu egiten dituelako.
- METEORO(L): Hombre Txopi, zer garagardotxu bat?
- TXOPI(M): Bai noski!... Zer ez zuen nahi?
- METEORO(L): Bai, baina gero ikusiko dudala esan diot, lehenengo giroa ikusi behar da, ia merkatua zelan dagoen... (urrun begiratu) Eeeeh! (beste neska batengana).
- TXOPI(M): Jode, beste bat (berdina egin)... Eh! (erantzunik ez)... Eh! (Badoa; buelta ta segituan bueltatu)... Lesbiana zela...Eh! (joan eta etorri) Nobioa duela... Eh! (joan-etorri) etxera doala, gaixorik dagoela... Eh! (joan denbora gehiago gelditu) nire arreba zen... Eta Meteoro aurkezteko esan dit... nire arazoa, punteria txarra dela uste dut.
- METEORO(L): (Berriro dator)
- TXOPI(M): (Txulito) Zer hori ere ez?... Ei! Beste eguneko neska eder hura.
- METEORO(L): Zein?
- TXOPI(M): Joe rubia hori, tabernaria.
- METEORO(L): Ah! Ondo, bere etxera joan ginen.
- TXOPI(M): (Detalleak jakin nahian) Eta?
- METEORO(L): Eta zer?
- TXOPI(M): (Kontatzeko gestua)
- METEORO(L): (Belarrira gestuekin... Txopik flipatu)
- TXOPI(M): Eta hori ordaindu barik izan zen.

- METEORO(L): (Noski).
- TXOPI(M): Nere idoloa zara (Meteoro igurtzi, txakurrak bezela)... kontagiatu mesedez, kontagiatu.
- METEORO(L): (Barrezka) Ez izan pailasoa.
- TXOPI(M): Pailaso ez, desesperau... egunero irteten naiz, ez dut jai bat sekula galtzen, radarra beti piztuta daramat eta edozeinekin enroilatzeko prest nago... baina inoiz ez dut ezer lortzen.
- METEORO(L): Sentitzen dut, benetan... igual taktikaz aldatu beharko duzu... Merkatu berrietara joan... Hemen danak ezagutzen zaituzte.
- TXOPI(M): Eta zu ere, eta neskaren batek, sexua nahi duenean zuregana dator... Eta gainera ondo egoten dira.
- METEORO(L): Eta nik zer egingo dut?
- TXOPI(M): Eta gero ez dizute txapia botatzen hurrengo egunean... nik kriston itsusia zen neska batekin harrapatu nuen, ez zidan ezer egiten utzi, eta gainera nitaz maitemindu zen... ikusten dudak bakoitzian ezkutatu behar izaten naiz.
- METEORO(L): Neska batekin harrapatu zenuela?... Hori aspaldi izan zen ezta Txopi?
- TXOPI(M): Eta zer? Oso ondo gogoratzen dut, askotan damutzen naiz gainera...
- METEORO(L): Ez zara damutu behar Txopi... egindakoa egina dago... hurrengoan gauzak hasieratik argi utzi eta listo.
- TXOPI(M): Bai ate gehiago ixteko... Nik ez dudana ulertzen da, zuk daukazun kabroi famarekin, danak zurekin harrapatu nahi izatea, eta gainera gero ez dizute biharamunean konturik eskatzen.
- METEORO(L): Ba hori ere gogorra da, eh...
- TXOPI(M): (Flipatu) Eeehhh???
- METEORO(L): Bai... Nik beti kunplitu behar dut; eta dudak famiari eusteko, gero gogoak dudanean ligatzeko problemarik ez izateko, ba beti prest egon behar naiz...
- TXOPI(M): Pobre.
- METEORO(L): Eta maitemintzen banaiz, zer?
- TXOPI(M): Ez duzu behar.
- METEORO(L): Zuk badakizu ze frustrantea den (txantxetan) jakitea neskek bakarrik sexurako nahi nautela, eta gero ez direla nirekin bazkaltzera geldituko... Asetuta daudenean, badoaz... Eta hor uzten naute... Bakarrik, lo.
- TXOPI(M): Txantxetan ari zara ez?

- METEORO(L): Ez benetan, frustrantea da, batzuk izena bez didate esan, eta telefonoa inoiz ez didate eskatu.
- TXOPI(M): Baina zelan izan al zara hain aurpegi gogor? Hace falta tener cara!... Hori da mutil guztien ametsa... egun bakoitzean neska ezberdin batekin harrapatu, gaitera tiabuenekin eta bukatu duzuenan neska desagertzea... Meteoro, zu nire idolua zara!
- METEORO(L): Badakit, Txopi... badakit (Txopiri aurpegian txalotxua eman) bueno banoa, neska batekin gelditu naiz. Agur!
- TXOPI(M): Ke cabrón!... Martiriarena egiten... (pentsatu) edo ez! Igual egia izango da ... ez diote telefonoa eskatzen oso txarra delako ohean... noski!... Nik neska batekin harrapatu nuen baina eskatu zidan (animoak goraka) eta nirekin irten nahi zuen, oso itsusia zen bai, baina nahi zuen... eta horren itsusia izanda meritua bikoitza da... neure burua baloratu behar dut, noski baietz! Oso ona naiz ohean!!!... Oso ona naiz ohean!!!... ke coño voy a ser bueno!... Ez nuen ezer egin... muxu vatus eman justu-justu... eta Meteoro ordea irtetzen den bakoitzean zas!... eta gainera tiabuenekin. Ke envidia... ke bajón!... Ke bajón!... Ke bajon...
- MEDIKUA(L): Deprimitua ikusten zaitut.
- TXOPI(M): Eta horretarako karrera bat ikasi behar da.
- MEDIKUA(L): Bai horrela, zure agresibitatea kanalizatu, bota dana kanpora.
- TXOPI(M): Bota behar dudana beste gauza bat da, ez agresibitatea.
- MEDIKUA(L): Ba ni ez begiratu horrela. Nik ere garesti kobratzen dut ordua, baina nire zerbitzuak ezberdinak dira, ahozkoak... (estula) eh, hitzegitekoak... bezeroa ohean botatzen da ere, baina bakarrik.
- TXOPI(M): Eta zure kontsultara baldin banoa, lortuko dut apur bat ligatzea?
- MEDIKUA(L): Xavier, ni psikologoa naiz, ez San Antonio.

(Badoa MEDIKUA eta LARRI dator. TXOPI depre gelditu)

- LARRI: (Pozik, martxoso) Hombre Txopi! Zer moduz?... Zer gaur juergia ezta?... Danak irtengo gara, Leirerekin plana aldatzea lortu dut... animatu txo, zer duzu ba?... (de coña) Nobiak utzi zaitu ala? Ja, ja, ja....
- TXOPI(M): (Badoa burumakur, ezer esan barik)

- LARRI: (Sorpres) Hombre! Meteorol? (lehenengo konprobatu, ondo begiratu, aktorea aldatu da).
- METEORO(M): Aupa Larril... Ez dakizu zer gertatu zaidan. Neska batekin nengoen bere ohean eta senarra agertu zaigu...
- LARRI: Ke cabrón! Je, je...
- METEORO(M): Nik ez nekien ezkontuta zegoenik!... Atzo ezagutu nuen Eroskin, eta gaur deitu egin nau bere etxera joateko...
- LARRI: (Ironiaz) Las mujeres te utilizan...
- METEORO(M): Eskerrak lehenengo pisuan bizi zela, erropekin balkoira bilusik irten behar izan dut... Eta beitu (prakak igo) presarekin galtzerdiak ahaztu.
- LARRI: (Barrezka) Ba aurkitzen baditu!...
- METEORO(M): Flipatuko du. Mesede bat eskatu behar dizut...
- LARRI: Ez!
- METEORO(M): Lelokeri bat dela.
- LARRI: Ez, ez, ez.
- METEORO(M): Behar dudala!
- LARRI: Ni ez naiz bere etxe horretan sartuko, zure galtzerdien bila!
- METEORO(M): (Konturatu... barre)
- BIAK: (elkarri seinalatu, "Sideways" -"Entre copas"- pelikulari omenaldia, inork ez du ulertzen).
- METEORO(M): Ez, ez da hori, prakak arineketan hartzean diru guztia lurrera jausi zait... Eta trago bat behar dut...
- LARRI: A joe! Hori zen?... Lehenago esan... Zer nahi duzu?
- METEORO(M): Birratxu bat... Eskerrak txartela ta mobila kotxean ahaztu ditudala bestela... Orain noa dirua ateratzera.
- LARRI: Lasai lehenengo arnasa hartu... birratxoa edan... Eta ikusten baldin badut tipo bat baseballeko bate batekin sartzen, abisatuko zaitut... (badoa garagardoa eskatzera) ke tíol!...
- METEORO(M): (Ikusle goari begiratu, zutundu, apur bat ibili, exhibitu)... Zer James Bond-eri ere protagonista aldatu zioten!... Ni naiz Oro... Mete-oro.
- LARRI: (Birrak ekarri, topa egin eta biak tragu ederra eman eta gozatu) Ba enbidia ematen didazu.
- METEORO(M): Ke ba! Nik lasaiago bizi nahi nuke; zu bezela.
- LARRI: Ba nik emozio apur bat beharko nuke... neure emozio bakarra inhautekiak dira... Leire mozorrotzen denez, beste batekin enrrollatzen naizela iruditzen zait.
- METEORO(M): Ke txorra eres!

- LARRI: Ez egia esanda, lanerako horren goiz altzatu behar naizenez... gauetan ez dudala ezertarako gogorik... gainera Leire telebista ikusten gelditzen da.
- METEORO(M): (Medikuaren bata jantzi brometan medikua imitatu) Ba neure eritzi profesionalaren arabera bi aukera dituzu: lanaz aldatu... edo bero zaudenean telebistako kableak ezkutatu.(Mediku bata utzi)
- LARRI: (Medikua imitatzen, bata ipini barik) Ba neure eritzi profesionalaren arabera egin behar duzuna da: nobia bat bilatu, formal ibili eta zeure agenda neuri emon, tentazioak uxatzeko... nik gordeko dizut. Ez dakit zu hobeto biziko zaren, baina gu behintzat bai, enbidia gutxiago pasako dugu.
- METEORO(M): Bueno banoa , neska batekin gelditu naiz.
- LARRI: Bai, agur!... Ke tío! Eta gainera ke jatú egiten da, hau bai ke jatzen dela de vicio". Nahiko nuke nik ere horregatik apur bat ke jatú ahal izatea... (edan)

(MIKE badator)

- MIKE: Aupa Larri!
- MIKE: Zer gaur juergia orduan?... Danak etorriko dira.
- LARRI: Bai zuri doluminak emotera.
- MIKE: Je, je... Ez oin ondo nago, gaur fiesta! bihar sofán etzanda gogoratuko naiz Ainhoaz, edo bestela amak gogoraraziko dit... bere esaldi lagungarriekin.
- LARRI: Gurasoen etxera bueltatu zara?
- MIKE: (Buruarekin baietz)
- LARRI: Eta Ainhoa gelditu pisuan?
- MIKE: Momentuz bai.
- LARRI: Jode...
- MIKE: Badakizu zer esan zidan amak?
- LARRI: Zer?
- MIKE: Todas te dejan!
- LARRI: (Barre) Ke maja.
- MIKE: Bueno baina hori bihar pentsako dut. Gaur fiesta... kontatu txistia, lehen ez duzu bukatu.
- LARRI: A bai. Ei, harrapatzen baduzu nire etxera ekarri ahal duzu. (Barre)
- MIKE: Kontatu txistia!
- LARRI: Bai, bai... badira bi gai...

- MIKE: Meteoro hasi zait, txiste hori kontatzen, baina homosexualen bikotea izan beharrean, neska ta mutilen artekoa zen.
- LARRI: Joe, ba txiste ezberdina izango zen.
- MIKE: Ez urteurrenarena eta urtebetzearena konta dit.
- LARRI: Eta konta badizu zergatik nahi duzu berriro nik kontatzea?
- MIKE: Ez horraino bakarrik konta dit.
- LARRI: Ah... (pentsatu)... Bueno egia esan bikote hetero batekin ere balio du... bueno neure bikotean bide hori itxita dago... baina beste bikote baten... baina tira niri homosexualen bikotearekin kontatu zidaten.
- MIKE: Bai, bai zeure erarara kontatu, urteurrena egiten dute eta baten urtebetetzea da.
- LARRI: Hori, ba besteak opari berezi bat egin nahi dio baina ez daki zer, eta bere lagun minari, galdetzen dio... eta lagunak proposatzen dio ezkontzeko eskatzeko.
- MIKE: Ala, lo que faltaba.
- LARRI: Zer?... Zer gertatzen da ba?
- MIKE: Kasualidadez, ezkontzeari buruz hitzegin behar .
- LARRI: Joe Mikel badakit nobiak utzi zaitula, baina ezin ditut neure hitz guztiak horrela neurtu, txistea horrela da... gainera zu ez zeunden ezkontuta... (pauza - pentsatu) eskatu dizu ta ezetz esateagatik, pikutara bidali zaitu!
- MIKE: Ez, ez da hori.
- LARRI: (Flipatu)... Zuk eskatu zenion ta horregatik utzi zaitu!!!
- MIKE: Ezetz, joder! Ez dela hori!
- LARRI: Orduan?
- MIKE: ... Gaur deitu nau esateko bere nobio berriarekin ezkontuko dela.
- LARRI: Orduan bere maitalea zen?... Ke zorra!
- MIKE: Ez... nirekin bukatu eta gero hasi zen berarekin... hori esan dit behintzat.
- LARRI: Baina ez duzue gaur utzi?
- MIKE: ... Ez....
- LARRI: Uhhh??
- MIKE: (Marmarrean eta baxu ez da ulertzen) Orain dela hogeitabederatzi egun.
- LARRI: Eh??
- MIKE: (Marmarrean) Hogeitabederatzi egun.
- LARRI: Zenbat egun?
- MIKE: **HOGUITABEDERATZII!!!**
- LARRI: Ah! Lehen gaur utzi duzuela ulertu dizut.

- MIKE: Ja, eske etxetik irten barik egon naiz...
- LARRI: Ah... (konturatu) eta lana?
- MIKE: Bajia hartu nuen...
- LARRI: Bajia... (pentsatu) eta txakurra??...
- MIKE: (Sorbaldekin Keinua)
- LARRI: (Flipatu) Ainhoa gelditu da txakurrarekin!???
- MIKE: Un cojón!
- LARRI: Orduan?
- MIKE: Egunez egiten dugu lo eta gauerdian pasiatzera irtetzen gara, horrela ez naiz inorekin gurutzatzen eta inork ez dit ezer galdetzen..
- LARRI: (Flipatzen) Eta txakurra pozik?
- MIKE: Bittor nirekin egonda pozik dago.
- LARRI: Orduan zertarako irten zara? Eskontzen dala ospatzera?
- MIKE: Por que no te vas a tomar por culo!?
- LARRI: Joe, ba gelditu etxean zoratzen.
- MIKE: Horregaitik irten naiz, ezin nuelako gehiago aguantatu, juerga botatzeko beharra nuekan jendea, desahogatu... baina beti gaia ateratzen badidazue...
- LARRI: Joe! Nik zer dakit... (barre) bueno behintzat gaupasa aguantatzeko entrenatu duzu... loguragatik ez zara etxera joango.
- MIKE: (Gogo barik barre) Je...
- LARRI: Ba ezkontzarena lelokeria bat da... zuk inoiz ez duzu nahi izan, beti esaten zenuen erromantikoagoa zela, paper barik ibiltzea.
- MIKE: Bai inoiz ez diot garrantzirik emon matrimonioari... neure nobia beste batekin ezkontzen dela entzun arte.
- LARRI: Haurdun dago.
- MIKE: Ez, ez, eeeeezz!...Ez dakit.
- LARRI: Ba ahaztu Ainhoa. Ez du merezi... horren azkar ahaztu bazaitu, eta beste batekin ezkontzera badoa.. hor ez dago ezer egiterik; hobe duzu ahaztea, ez du merezi.
- MIKE: Hori laguntzeko esan didazu, ezta?
- LARRI: Bai, benga txistea kontako dizut.
- MIKE: A ver egia dan!
- LARRI: Bai. Ba lagunari esaten dio bere bikotea ez dela eskontzen den hoietakoa. Begira zu bezela.
- MIKE: (Ez dio graziaz egin).
- LARRI: Je, je... bueno ta orduan lagunak galdetzen dio: "Zer da gehien gustatzen zaiona zure nobioari?"... eta esaten dio: "Ba gehien gustatzen zaiona... Brigitte Bardot da"...

- MIKE: Joder!
- LARRI: Zer gertatzen da orain?
- MIKE: Ainhoa rubiaz tintatu da, bere nobioari Brigitte Bardot asko gustatzen zaiolako...
- LARRI: Joe! Eta zelan dakit nik hori? Txistia horrela da... Ezin dut ezer esan, danak ematen dizu mina...
- MIKE: Danak ez!
- LARRI: Gainera neska hori zoratuta dago, ahaztu ezazu...
- MIKE: Bai, ahazteko irten naiz, baina ez naiz laguntza handirik jasotzen ari!
- LARRI: Joe!... Yo qué sé!
- MIKE: Bueno, banoa tragu bat hartzera alboko tabernara.
- LARRI: (Berarekin joateko mugimendua)
- MIKE: Bakarrik!!... Gero etorriko naiz.
- LARRI: Bueno agur sensible. (Bakarrik gelditu) Ia egunen baten kontatzen diodan txistia. (Gitarra hartu ta jo)

(GARTZIA sartzen da)

- GARTZIA(M): Kaixo! Gotzon Larrinaga.
- LARRI: Hombre Manuel Gartzia!... Barkatu baina joan beharra daukat... Mikelen bila noa, gero etorriko naiz.
- GARTZIA(M): Ah, agur. (Eskuekin hanketan perkusioa jotzen, gero porroa egitearen pantomima egin).
- METEORO(L): (Badator ta Gartzia ikusten duenean buelta hartu nahi du... baina...)
- GARTZIA(M): Hombre Josu Enbeita, alias "Meteoro".
- METEORO(L): Hombre Manuel García, alias "Gartzia".
- GARTZIA(M): Barkatu baina Gartzia ez da alias bat, aspaldi aldatu nuen, zeren eta berez abizen euskalduna da eta N.A.N.-ean horrela idatzita daukat.
- METEORO(L): Uhuh... (Buruarekin baietz, baina berdin zaio) Zertan ari zara?
- GARTZIA(M): Ah, eske porroak erretzen utzi dut eta monoa daukat. Gaur jaitxo, ezta?
- METEORO(L): Ba hori dirudi, baina nik ez daukat gogo handirik (disimulatzen).
- GARTZIA(M): Ba plan ikaragarria dago: Arangoitin herri-afari solidarioa dago, non Busheri gutun kolektibo bat idatziko zaio; eta gero bertsolariak eta perkusioa egongo da... (emozionatu).
- METEORO(L): Itzela (gogo barik).

- GARTZIA(M): Gero Uribarrin auzoko andreek antzezlan bat egingo dute jeneroko biolentziaren kontrakoa eta bukatzerakoan honi buruzko hitzaldi foruma egingo da. Non hitzegingo du antzezlanaren idazleak... Ni seminario baten egon nintzen eta asko ikasi nuen, oso neska baliotsua da: Charlenne, deitzen da alemaniarra da baina bere ama txinatarra da, eta bere ama hizkuntza erreibindikatzeko, hitzaldia mandarinez emango du...
- METEORO(L): (Plan "ikaragarria" dela pentsatzen) Mandarina ez dut uste desagertzeko arriskuan dagoenik.
- GARTZIA(M): A que bai interesgarria dela?
- METEORO(L): Bai, bai... akononantia.
- GARTZIA(M): Eta bukatzeko, Senagaletik datorren musika talde bat...
- METEORO(M): Bueno behintzat horrek bere martxia izango du.
- GARTZIA(M): Zirraragarria da, haien musika itsasoaren soinu errelaxantean oinarrituta dago, non bere soinuaren zehar erreboluzioan erahildako olerkari baten hitzak entzuten dira... Lorca afrikarra deitzen diote.
- METEORO(L): Ze hizkuntzatan hori?
- GARTZIA(M): Suhajili.
- METEORO(L): Ya...(pentsatu... konturatu) gustoko duzun neska bat joango da ezta?
- GARTZIA(M): (Disimulatu)... Baaai.
- METEORO(L): Eta txapa guzti hori irentsi behar dugu zuk zakila bustitzeko.
- GARTZIA(M): (Sorbaldak igo).
- METEORO(L): Mereziko du behintzat.
- GARTZIA(M): Aluzinantea da... bi karrera ditu, Bartzelonan ikasi zuen, non forum solidarioa eratu zuen bere fakultatean... Flipatuko zenuke zernolako konferentziante balidoak ekartzen zituen, gero kooperazio internazionalako masterra egin zuen... eta Amnistia Internazionalako Europako Unibertsitateko ikasleen elkarteko bozeramailea izan da, eta...
- METEORO(L): Eta zer?
- GARTZIA(M): Eta bihar Hegoameriketara doa urte osorako.
- METEORO(L): (Begiratu, ta pentsatu)... Manu, que nos conocemos.
- GARTZIA(M): Está buenísima tio.
- METEORO(L): Lo que hay que hacer para que un colega eche un polvo.
- GARTZIA(M): (Sorbaldak igo).

- METEORO(L): Gainera jai horretan,... bueno jai... egongo diren neska gehienak lesbianak izango dira... ni bezelako mutilak gorrotatzen dituztenak, eta Athletic-ek liga irabazi zuenetik depilatu ez direnak.
- GARTZIA(M): (Sorbaldak igo).
- METEORO(L): Egun baten Txopi putetxera lagundu behar izan nuen, baina hau askoz gogorragoa izango da... han behintzat bukatzen zuen bitartean, nik gin-tonik bat hartu nuen barran jesarrita, lasai-lasai, itxaroten, partidua ikusten.
- GARTZIA(M): (Sorbaldak igo).
- METEORO(L): Erdi alemana ta erdi txinatarra den hori lesbiana da?
- GARTZIA(M): Ez.
- METEORO(L): Ta ondo dago?
- GARTZIA(M): Bai.
- METEORO(L): (Irribarre) Marihuana ta palestinoaren bila noa.
- GARTZIA(M): (Mobilarekin neskari deitu) Kaixo!... Bai, Manu naiz... Manuel... Hori bai, Manutxu. Azkenean joango naizela, bai laguntxu batekin... bai ederto... zer?... Beranduago?... Ah, afaltzera zoaz... norekin?... Ah, bai ezagutzen dut bai, musikari beltza, digo koloreko musikaria ... Bai Djimundu ... bai, bai... Djimundu... Baina esan dizut, nahiko nuke eh, baina ezin dut urteosorako hegoamerikara joan, lana daukat, furgoneta ordaindu... Etxea... Ezin dut... Djimundu doala?... Dana utziko duela?... Bai, oso solidarioa da, oso solidarioa... Ah, bai, geroarte, agur bai... (Eskegi) Dana utziko duela! Zer utziko du? Txabola? Oso solidarioa, oso solidarioa!

(TXOPI dator)

- GARTZIA(M): (Hondatuta) Txo-pi-tea? Aldatu zara.
- TXOPI(L): (Urduri) Zer Gartzia, esan didate oriental katxondaz betetako jai batetara goazela.
- GARTZIA(M): Bai eta txirula luzea jotzen duten musikari beltzak ere.
- TXOPI(L): (Ez du ulertzen)... Ni nesketaz ari naiz, ez musikari beltzetaz...
- GARTZIA(M): Ni baita...
- TXOPI(L): Baina joango gara, ala ez?
- GARTZIA(M): (Pentsakor) Lorca homosexuala zen.
- TXOPI(L): Uhh??
- GARTZIA(M): Lorca, marikoia zela! (emozionatu)
- TXOPI(L): Hori uste dut... eta?

- GARTZIA(M): Ezer ez... igual oraindik itxaropena dagoela!
- TXOPI(L): Noski! Hori ez da sekula galtzen!
- GARTZIA(M): Horixe baietz!!!
- BIAK: Ba goazen!!!
- TXOPI(L): Gaur sartuko dugu!
- GARTZIA(M): Por cierto, entzun dut hortik zuri buruzko gauza...
- TXOPI(L): (Moztu) Ez da egia!... Benga goazen!... Gaur sartuko dugu!
Gaur sartuko dugu, eta gaitera de balde!

(Sartzen dira MIKE eta BILINTX, biak triste ta burumakur).

- MIKE: Aupa Bilintx, zuk bai ulertuko nauzula.
- BILINTX(L): Zer duzu ba?
- MIKE: Ainhoak pikutara bialdu nau.
- BILINTX(L): Benetan? Ze pena... nik uste nuen betirako izango zela hori...
- MIKE: (Isildu baina baietz pentsatu).
- BILINTX(L): Ezin duzu lorik egin, eta edozerk gogorarazten dizu?
- MIKE: Bai.
- BILINTX(L): Pelikulak?
- MIKE: Bai.
- BILINTX(L): Abestiak.
- MIKE: Bai.
- BILINTX(L): Liburuak.
- MIKE: (Begiratu erantzun barik, asko irakurtzen ez duelako).
- BILINTX(L): Ah, bale ez duzu asko irakurtzen... hobeto horrek bai ekartzen dituela gogorapenak.
- MIKE: Bai, horregatik.
- BILINTX(L): Norbaitek istorio bat kontatzen dizu eta nahiz ta martzianoei buruzkoa izan, zuri Ainhoari buruzko zeozer ekartzen dizu burura.
- MIKE: Baai, bai, bai...
- BILINTX(L): Sentitzen dut, baina txarto zaude, eta horren kontraez dago erremediorik, nik hamabi urte daramat horrela.
- MIKE: Badakit, Bilintx, badakit.

(BILINTXek berea gogoratzen du galderak egiterakoan eta bera ere triste jartzen da; biak oso triste —> ixilunea eta baxu-baxu abesten hasi).

- BILINTX: Triste bizi naiz eta
- BIAK: hilko banintz hobe

badaukat bihotzian
hainbat atsekabe
Dama bat maitatzen det
bainan haren jabe
sekulan izateko
esperantzik gabe.

- MIKE: Banoa Bilintx...
- BILINTX(L): Eta bigarren estrofa?
- MIKE: (Flipatuta gelditu, gitarra hartu eta Bilintxeri eman)
Oso lagungarria izan zara... Suizidatzera noa.
- BILINTX: (Taburetean jesarrita gelditzen da bere maitarengan
pentsatzen, abestia barrutik abesten eta gitarrarekin
bluesa jotzen).

.....

- TXOPI(M): (Peruko txano batekin eta palestinoarekin agertu) Aupa
Bilintx! Ikusi dituzu Meteoro ta Gartzia?
 - BILINTX(L): Ez... zer ba, planik baduzue?
 - TXOPI(M): Eh,...ez.
 - BILINTX(L): Entzun dut danok irtengo garela gaur.
 - TXOPI(M): Bai; egia da... baina Meteoro, Gartzia eta nik errekadu bat
egin behar genuen... bina azkenengo momentuan nitaz
ahaztu dira.
 - BILINTX(L): (Begiratu baina bere munduan).
 - TXOPI(M): Beti berdin! Neska batzuekin zeozer egiteko aukera
dagoenean, baztertzen naute... horregatik ez dut ligatzen,
nire lagunak putaseme batzuk direlako!
- (Bilintx bitartean badoa burumakur) ... Eta gero etorriko dira biak esaten
jai ikaragarria izan dela, eta tailandesa eder batzuekin
enrroilatu direla, ja!!... Ba ni ere enrrollatu naiz tailandeseekin
eta gainera bere herrian... ta gutxi ordainduta; Eta gainera
zergatik sinistu behar dut? Zergaitik sinistu behar dut? Eh?
Mutilez betetako jai aspergarria izan bada ere, ez dute
esango, etorriko dira hona sakando petxo.
- LARRI: (Sartu Txopi bukatu baino lehen) Zer, zure burua
justifikatzen jarraitzen duzu?
 - TXOPI(M): Ez. Putaseme hauek, planetik kanpo utzi nautela!
 - LARRI: Plana neskekin zen?

- TXOPI(M): Bai, jai solidario batera joan behar genuen neska konprometiduekin ligatzera.
- LARRI: Eta ez zaituzte eraman.
- TXOPI(M): Ez.
- LARRI: (Bazilatzen) Ke putada! Holako neskei sexua asko gustatzen zaie.
- TXOPI(M): Bai, bai hori entzun dut, horregatik nago horrela.
- LARRI: Ulertzazu Txopi, ez zuten lastrerik nahiko.
- TXOPI(M): Lastre bat ni? Zergatik?
- LARRI: Hombre neska hoiek berezi samarrak dira, zure estiloarekin sartu ezkeron hondatu dezakezu... sexua nahi dute, bai, baina ez oraindik birjina den mozkonti goseti batekin... bere herritik, bakarrik turismo sexuala egiteko irten dena...
- TXOPI(M): Ni ez naiz birjina... Turismo sexuala, zuk esan duzu. Turismo sexuala.
- LARRI: Ah, bai... egia, bai.
- TXOPI(M): Ta turismo sexuala izango da, baina turismoa da. Ni Hegoamerikan eta Asian egonda nago... Meteoro ez da inoiz inora joan... zer kontakodie?... Ez du jakingo zertaz hitzegin.
- LARRI: Guapoa da... ez du behar.
- TXOPI(M): Ja... orduan neska guztiak bezelakoak dira...
- LARRI: Bai, ez zaizkie astunak gustatzen.
- TXOPI(M): (Badoa burumakur).
- LARRI: Pobre txabal, egia esan nik ere ez nuke eramango... joe baina hauek ere, vaya gallos! Ze uste dute direla?... Ze Meteoro bai, bere arrakasta dauka, baina Gartzia, aspaldi ez naizela berarekin egon, baina... kooperante solidario con furgo Volkswagen de seis kilos egin denetik ez da asko ibili gurekin, baina lehen ez zeukan exito handirik... egia esan inoiz ez da izan herriko azkarrena.

(Badator GARTZIA, LARRI isildu ez entzuteko)

- GARTZIA(M): Aupa Gotzon!
- LARRI: Aupa Manuel!
- GARTZIA(M): Imanol; ikusi duzu Josu?
- LARRI: Nor?
- GARTZIA(M): Meteoro.
- LARRI: Ez baina (barre) Txopi ikusi dut zuen bila zebilen.
- GARTZIA(M): Bai kanpoan ikusi dut, eskutatu behar izan naiz.
- LARRI: Ke kabrones!

- GARTZIA(M): Ez, joe, ulertu... zoro baten moduan etorri zait, ez dakit nori entzun diolako oriental katxondaz beteriko jai batera gindoazela... urteetan lortu dudan errespetua galduko nuke holako panoli baten laguna naizela ikusiko balute.
 - LARRI: Pobre txabal.
 - GARTZIA(M): Zuk berdina egingo zenuke.
 - LARRI: Bai.
 - GARTZIA(M): ("ikusten" keinua)... Ia Meteoro datorren Txopi agertu baino lehen.
 - LARRI: Gainera okasiorako jantzita agertu da palestino ta guzti.
 - GARTZIA: (Barre) Kar, kar, kar...
 - LARRI: Beitu hor dator Meteoro... bueno ondo pasa... ni Mikelen bila noa, a ver oraindik bizirik dagoen.
 - GARTZIA(M): Azkenean berandu helduko gara eta txistulari beltzarekin enrrollatuko da... Ez dakit zergaitik utzi nituen pianoko klaseak, musikariak gustatzen bazaizkio...
- (METEORO sartuko da, azkar Txopirengandik iheska).
- GARTZIA: Joe! Bazen ordua Josu... berandu helduko gara... nik ezin dut denbora galdu bestela beltzarekin harrapatuko du.
 - METEORO(L): Lasai joe! Ez dakizu zelako buelta emon behar izan dudan Txopirengandik eskapatzeko...
 - GARTZIA(M): Bai nik ere, tira goazen azkar... nire furgonetan goaz?
 - METEORO(L): Et, et, et ni, neure kotxian noa... horrela ez naiz zure zain egon beharko.
 - GARTZIA(M): Baina ezin gara bi kotxetan agertu pijo batzu garela pentsako dute... eta gainera ez da batere ekologikoa.
 - METEORO(L): Ba etorri neurean.
 - GARTZIA(M): ...Ez... goazen, baina zuk urrun aparkatu eta gero deitu, Eh! Txopi dator! Goazen azkar. Gogoratu urrun aparkatu, ta deitu!
 - METEORO(L): Baaa!
 - TXOPI(M): (Korrika sartzen da) Joan dira? (publikoari) Ikusi ditut... kabrones!! (telefonoa) Eh momentu bat... (Patxi dela ikusi, eta hartu gogobarik) Zer Patxi?
 - PATXI(L): (Telefonoz hitzegiten) Zer moda otoño-invierno?
 - TXOPI(M): Ez jai batera joateko jantzi dut.
 - PATXI(L): Eta zertarako behar zenuen palestinoa?
 - TXOPI(M): Ba ligatzeko, ligatzeko.
 - PATXI(L): Ahaztu mozorroak Xabier, zaren bezela agertu behar zara...

- TXOPI(M): Bizitza osoa daramat taktika horrekin eta ez dut inoiz ezer lortu, Meteoro ordea gezurretan dabil beti, eta beitu.
- PATXI(L): Baina Meteoro...
- TXOPI(M): Zer? guapoa da, ezta?
- PATXI(L): Bai, baina ez nihoan hori esatera... Meteorok neskekin normal-normal hitzegiten du eta neskek berarekin barre egiten dute.. ondo pasatzen dute... igual ez da visitas osorako tipo bat, baina gau baterako plan ikaragarria omen da... zuk ordea ikaratzen dituzu... txakur bero bat dirudizu... aburra dariola.
- TXOPI(M): Eta zuk zelan dakizu horrenbeste Meteorori buruz.
- PATXI(L): Ba berarekin bizi izan nintzelako... eta hori bai zela enbidia pasatzia...
- TXOPI(M): Beragatik ala neskatik?
- PATXI(L): Vete por ahí primo! (Badoa)
- TXOPI(M): Vete tú! Ahí va la ostia!... (Telefonoa eskegi) Honek teoria primeran daki, Aita Patxi el sermones, baina praktika...
- MEDIKUA(L): Uhhmm... Xabier Txopitea.
- TXOPI(M): Bai, zer?
- MEDIKUA(L): Zer moduz?
- TXOPI(M): Ondo!... Bueno ez txarto, eta zer? horrek ez du ezer esan nahi!
- MEDIKUA(L): Uhhmm... dualitatea... ondo ta txarto sentitu... konfusioa... agresibidadea...
- TXOPI(M): Ondo nago. Pentsatu barik erantzun dut... gainera orain ez gaude kontsultan!
- MEDIKUA(L): Baina Mahoma ez badoa mendira... ez zinen azken kontsultara etorri. Sendatu zaizu?... Esan nizun buruko gauza bat zela... alde hortatik ez zeneukala arazorik.
- TXOPI(M): Ba ez zait sendatu... bueno ez eta bai.
- MEDIKUA(L): Berriro dualitatea.
- TXOPI(M): Ez... Gauzia da bakarrik nagoenean ederto dabilela... baina neska batekin nagoenean ez funtzionatzen... ez dut ezer sentitzen.
- MEDIKUA(L): Ba probatu mutilekin.
- TXOPI(M): Ja, ja... Psikiatrek beti homosexualak deskubritzen.
- MEDIKUA(L): Barkatu bromatxua izan da... bueno baina berri pozgarria dugu ez? Neska batekin egon zarela esan duzu, zorionak!... Behintzat ligatzea lortu duzu... Aurrera pausu handia da... igual horregatik jarri zinen urduri.

- TXOPI(M): (Ez emozionatzeko keinua) Ez dut ligatu, puticlubean izan zen.
- MEDIKUA(L): Xabier... Horretara ohituta zaude ez dut ulertzen zergaitik jarri zinen urduri...
- TXOPI(M): Ez naizela urduri jartzen!... Beste arrazoiren bat egon behar du!
- MEDIKUA(L): Ba berriro saiatu. Beitu Xabier, kontsulta hau ez dizut kobratuko, bestela terapia garestiegia irtengo zaizu, baina berriro saiatu.
- TXOPI(M): Ez, kobratu lasai, ni ez naiz hara bueltako; gainera haiek ere ez zidaten kobratu, ezin izan nuenez ezer egin, ba pena eman nien... Ia, normalean bakarrik noa, ezta? Ba kasulitatez egun horretan lanekoekin joan nintzen...
- MEDIKUA(L): Hor dago kokka!, lana ta plazerra nahastu zenuen eta estresagatik ez zitzaizun funtzionatu.
- TXOPI(M): Ke estres, ni ke ostias! Gainera nire osabaren koadrilla zegoen kanpoan... ez dakizu ze ridikulu... pasillo ta guzti egin zidaten... batek biagra bat bota zidan...
- MEDIKUA(L): Joel... Ba garestiak dira.
- TXOPI(M): Igual ni holan ikustean, bera sendatu zen... ta klaro nire osabak mundu guztiari kontatu dio, entre pote y pote;... ez dakit zerk ematen didan lotsa gehiago, ama enteratzea putero bat naizela, edo enteratzea inpotentea naizela.
- MEDIKUA(L): Animo Xabier.
- TXOPI(M): Animo? Badakizu zer abestu zidaten nire osabaren koadrillakoek?
- MEDIKUA(L): Eh, ez. Zer?
- TXOPI(M): "Arriba Rojo ese balón"
- MEDIKUA(L): (Ez du ulertu) Barkatu?
- TXOPI(M): (Abestu deprimiturik)
Arriba! Arriba-arriba!
Arriba Rojo ese balón,
que Sarabia lo prepara
que Sarabia lo prepara
y Dani mete gol
- MEDIKUA(L): (Barreari eutsiz) Ke kabrones!... Baina zu beti izan zara ausartia, ta boluntariosoa... edan apur bat beldurra kentzeko -baina pasatu barik- eh, ze gero badakizu (ez jasotzearen keinua). Eta gero joan saiatzera berriro.
- TXOPI(M): Ez, ni ez noa berriro.

- MEDIKUA(L): Baina Xabier, beste putetxe batera joan ahal zara... denbora pasatzen uzten baduzu, zailagoa egingo zaizu... burua jaten hasiko zarela... Benga Xavier! Animoa gora! Gora! Je, je (besoarekin keinua)... eta ia gola sartzen duzun!

(MEDIKUA badoa eta LARRI sartzen da)

- TXOPI(M): Ze errez ikusten dute dana medikuek, eta grabea bada, zer?... Ze ni ez naiz urduri jartzen, beste arrazoi bat egon behar du... (pentsatu) Kantzerra daukat! Amstrong bezela... Kantzerra daukat... Kantzerra daukat... Kantzerra daukat...
- LARRI: Zer Txopi, igandean San Mamesera etorriko zara?
- TXOPI(M): (Begiratu eta ezer esan gabe joan).
- LARRI: Joe forofogoitia, ez nuen uste Athletic txarto ibiltzeak horrela eragingo zionik... klaro berak golik sartzen ez duenez Athleticaren golen zai dago... (barre).
- RUBEN(M): (Sartu) Aupa Gotzon!
- LARRI : Hombre Ruben !
- RUBEN (M) : Egin dut, ausartu naiz!
- LARRI: Zer egin duzu Ruben?
- RUBEN(M): Aitziberri maitasun gutun bat idatzi diot.
- LARRI: Oso ondo, Ruben!... Eta eman diozu?
- RUBEN(M): Buzoian sartu diot.
- LARRI: Oso ondo!!!
- RUBEN(M): Baina azkenean ez dut sinatu...
- LARRI: Ruben... eta zelan jakingo du zurea dela?
- RUBEN(M): Eske lehenengo bere erreakzioa ikusi nahi dut.
- LARRI: (Imitatu) "Lehenengo bere erreakzioa ikusi nahi dut".
Eta zelan ikusiko duzu bere erreakzioa?
- RUBEN(M): Ba oso errez. Bere etxe aurreko teilatura igoko naiz katalajo batzuekin, eta etxeko kortinak kendu dituzenez bere alaba alergikoa delako, ba, dana ikusiko dut.
- LARRI: Joe, James Bond!
- RUBEN(M): Eta Hannibal Lecter, senarrari beste gutun bat bialdu diot, baina ez maitasunekoa...
- LARRI: (Ikaratuta) Ruben!!!
- RUBEN(M): Lasai ez naute harrapatuko... letrak egunkaririk moztu ditut, pelikuletan bezela...
- LARRI: Ba-ba-baina Ruben!

- RUBEN(M): Zuk esandakoa egin dut. Ausartu naiz, aurrera pausua eman dut!
- LARRI: Baina nik ez dizut esan inor mehatxatzeko.
- RUBEN(M): Baina zuk esan didazu bere senarra oztopo bat zela gure erlazorako.
- LARRI: Nik hori esan dizut!?
- RUBEN(M): Bai.
- LARRI: Baina ez nuen zentzu horretan esango... Nik nahi nuen beste neska bat bilatzea, ez honen senarra akabatzea.
- RUBEN(M): Ba... berandu da jada... (Badoa).
- LARRI: Berandu?... Dios! Psikopatez inguratuta nago! Hori gertatzen zait aholkuak emateagatik... Lehen behintzat baketsua zen, ta orain psikokillerra bihurtu da... Aholku bila etortzen zaidan hurrengoari, danari baietz esango diot (eskuak garbitu).
- MIKE: (Mozkortuta sartu, lepotik oratu) Larri, non sartu zara?
- LARRI: Falta zana, hemen zoroak aguantatzen... Zure zain.
- MIKE: Abestu nahi dut!
- LARRI: Uuhhm??
- MIKE: Nirekin abestu!
- LARRI: Orain? Zauden moduan?... Kontzertuak oin dala ordubete hasi behar zuen... Gainera zuk ez duzu gitarrarik ekarri.
- MIKE: Ez kontzertua ez; bakarrik abesti bat... Ainhoari dedikatua.
- LARRI: (Ondorioetan pentsatu)... Ondo, ondo da. Eta, zer abestuko dugu?
- MIKE: (belarrira) "Si te dicen que me vieron muy borracho"
- LARRI: Joder... ondo, ondo... (Gitarra hartzeko alatzatu)
- MIKE: Ez, ez gitarra barik... A pulmon!

- BIAK: (MIKE pasioarekin hasi eta LARRI gogo barik hasi, baina traguekin berotzen joan eta MIKEri azkenean protagonismoa kendu).

"Por tu amor que tanto quiero y tanto extraño,
que me sirvan una copa y muchas más,
que me sirvan de una vez por todo el año
que me quiero seriamente emborrachar.
Si te dicen que me vieron muy borracho,
orgullosamente diles que es por tí.
Porque yo tendré el valor de no negarlo,

gritaré que por tu amor me estoy matando,
y sabrás que por tus besos me perdí.
Para de hoy en adelante,
ya el amor no me interesa
gritaré por todo el mundo,
mi dolor y mi tristeza.
Porque sé que de este golpe
ya no voy a levantarme...
Aunque yo no lo quisiera,
voy a morirme de amor".

- LARRI: (In crescendo joan da eta MIKE estaltzen bukatu du).
- MIKE: Eskerrik asko. (Badoa, lur jota)
- LARRI: Eta azkenean txistia ez diot kontatu... Bueno hobeto.
- METEORO(M): (Sartu) Joe! Zer eman diozu Mikeri edateko ba?
- LARRI: Nik ez diot ezer eman, berak eskatu du, nagusitxua da!
- METEORO(M): Bale, bale, lasai!
- LARRI: Zu ez zeunden jai alternatibo batetan?
- METEORO(M): Alternatibo... Gartzinari gustatzen zitzaion neska hura, txirulari beltz batekin enroilatu da, eta klaro, Gartziak mojitoekin kriston mangia harrapatu du... Ta neska jeloskor jartzeko, oso neska gutxi zegoenez... Ba beltz handiago batekin enroilatu da.
- LARRI: Mutil batekin?
- METEORO(M): (Buruarekin baietz) Uhh
- LARRI: Don Manuel García Ontiveros?
- METEORO(M): El mismo que viste y calza.
- LARRI: Si, ya puede calzar el, porque como le calce el negro...
- BIAK: (Barre)
- LARRI: Eta zuk?
- METEORO(M): Nik?... Oso neska gutxi zegoen... Bueno, oso jende gutxi zegoen. Pasable zegoen bat ikusi dut harengana hurbildu naiz, eta izotza apurtzeko, txiste bat kontatu diot... Ostiko bat eman dit potroetan... Joatea erabaki dut.
- LARRI: Erabaki ona. Ze txiste zan ba?
- METEORO(M): Brigitte Bardotena, ezagutzen duzu.
- LARRI: Ah, bai... baina ez dut ulertzen zergatik jo zaituen.
- METEORO(M): Nik ere ez baina... Bueno zuk txistia homosexualen bikote batekin kontaktzen duzu, eta nik bikote heterosexual batekin.
- LARRI: Baina txistia berdina izango da.

- METEORO(M): Ez dakit... Zuk zelan kontaktzen duzu?
- LARRI: Txistea?
- METEORO(M): Bai, bai... kontatu ia, eske ez dut ulertzen zer gertatu den.
- LARRI: Ba ahaztu, atzeratua izango zen... edo igual txarto ulertu dizu... Ez emon buelta gehiago.
- METEORO(M): Bai baina... Kontatu, kontatu.
- LARRI: Bueeno... Bada homosexualen bikote bat urteurrena egiten dutela...
- METEORO(M): Bai, nire bertsioan bikote heterosexuala da eta gainera mutilaren urtebetetzea da.
- LARRI: Bai aktiboarena... eta pasiboak
- METEORO(M): Neskak.
- LARRI: Opari berezi bat egin nahi dio, eta bere lagunik onenarengana doa aholku bila. Eta honek esaten dio: "Zergaitik ez diozu ezkontzeko eskatzen?"
- METEORO(M): Hori asmatu duzu.
- LARRI: Ez, niri horrela kontatu zidaten... Begira honekin igual ostikoaz libratuko zinen.
- METEORO(M): Ez dut uste... Benga jarraitu.
- LARRI: Bai eta honek esaten dio bere nobioa ez dela ezkontzen den hoietakoa. Ta orduan lagunak galdetzen dio:
- METEORO(M): "Zer da gehien gustatzen zaiona zure nobioari?"
- LARRI: "Ba gehien gustatzen zaiona, gehien gustatzen zaiona... Brigitte Bardot da".
- METEORO(M): "Eta zergaitik ez duzu egiten tatuaje bat Brigitte Bardoten omenez!"
- LARRI: "A ze ideia ona!"... Eta ipur masail bakoitzean **B** haundi bana tatuatzen du.
- METEORO(M): Bi letra haundi barrokoak.
- LARRI: Ez. Gotikoak.
- METEORO(M): Que más da!
- LARRI: Eta ospatzeko afari eder bat prestatzen du.
- METEORO(M): Kandelak eta guzti.
- LARRI: Bai, eta ohera bidean esaten dio: "Gaur zure eguna da, nik ez dizut ezer eskatuko, eman nahi duzun guztietan".
- METEORO(M): Neskak esaten dio: "Gaur utziko dizut beti eskatzen didazuna eta inoiz ez dizudana uzten".
- LARRI: Eta hasten dira.
- BIAK: (Orgasmoa simulatu)
- LARRI: Eta orduan galdetzen dio: "Zer? Gustatu zaizu oparia?"

- METEORO(M): ..."Oparia? (ez daki zertaz ari den) Esto... Oparia?... Ze opari?"
- LARRI: "Beti berdin, danak berdinak zarete! Ez zarete ezertan fijatzen"...
- METEORO(M): Eta lau hanketan oraindik, argia pizten du:
- LARRI: (Eperdia seinalatzen) "Begiratu! zuretzako egin dut".
- BIAK: (Biak betaurreko beltzekin, orain biak dira METEORO. Betaurrekoak jaitsi irakurri, bata besteari begiratu):
"BOB?"
 (Aurrera begiratu, hatzamarrekin betaurrekoak igo, ,
 ta ikuslegoa seinalatu):
"NOR DA, BOB?"

Jon Urraza